

**CLUB DEPORTIVO HERNANIK GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOAREN
LEHIAKETARAKO EPAILE BAKARRAK 2015EKO UZTAILAREN 8AN EMANDAKO
EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUEN ERABAKIA**

Espediente-zenbakia: 27/2015

AURREKARIAK

Lehenengoa.- CD Hernani klubak errekurtsoa jarri du Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Lehiaketarako Epaille Bakarrak 2015eko uztailaren 8an emandako Ebazpenaren aurka. Ebazpenak Hernaniko 2. urteko kimuek Zegaman, Udaberri txapelketaren barnean, 2015eko ekainaren 26an, Zestoako taldearen aurka jokaturako partida 16-8 galdu zutela ezarri zuen.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzardeak errekurtso hori izapidetzea onartu zuen eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioari espedientea eskatu zion; era berean, Federazio horri entzunaldi-izapidea ere eman zion.

Hirugarrena.- 2015eko abuztuaren 12an Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eskatutako txostena aurkeztu zuen, Federazioak egindako alegazio-idazkiarekin batera, bai eta partidako akta berresten duen eta partidaren epaileak sinatutako idazkiarekin batera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzardeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzardea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.



Era berean, aipatzekoa da uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan eta uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, Eskola kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzkoak, 4. artikuluan, xedatzen dutena; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahalmena erabiltzea: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

Bigarrena.- Errekurtsoa eragin zuten gertakariak Zestoa eta Hernaniko 2. urteko kimuek, Udaberri txapelketa barnean, 2015eko ekainaren 26an, Zegaman jokatu zuten binakako esku pilota partidaren gertatu ziren.

Norgehiagokaren aktan, honako gertakari hau jasotzen zen:

"Hernaniko taldea erretiratu egin da, pilotariak lesiorik ez zuten arren, pilotari batek ondoeza zuelako eta aurrera joko ez zuela esan duelako. Ordezkoa atera nahi izan dute. Hernaniko Ordezkariek esan du taldea ez dela erretiratu, partidaren jarraitzeko egoeran ez zegoen jokalaria bat zegoela esan du eta ordezkoarekin aldatu nahi izan du, partidaren aurretik ordezko horren fitxa aurkeztu duelarik. Epailak ez dio utzi aldaketa egiten. Hernaniko Ordezkariek partida jokatu aurretik esan dit pilotariak gau txarra pasa duela eta, hala ere, partidari ekin dio".

Epailaren akta ikusita, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko Lehiaketarako Epailak Bakarrak honakoa ebatzi zuen:

"HERNANIKO 2. urteko kimuen taldea galtzailatzat jotzea, 16-8ko emaitzarekin, Zegaman 2015eko ekainaren 26an, Udaberri txapelketa barnean, ZESTOAKO taldearen aurka jokatutako partidaren ondorengo arrazoiengatik:

- *Epailak zuzen jardun zuen pilotari nagusia ordezkatu nahi zuen ordezko pilotariari jokatzen ez uztean, norgehiagokan zehar ez baitzen egon partidaren aurreko*



baldintza berdinetan jardutea eragozten zioten aldaketarik ustez lesionatutako pilotariaren egoera fisikoan edo fisiologikoan (joko araudiaren 49. artikulua).

HERNANIko Ordezkariek berak onartzen du, bere aurkaratzeko idazkian, partida hasi aurretik epaileari esan ziola pilotari nagusietako bat "apur bat zorabiatuta zegoela eta buruko mina zuela".

- *HERNANI klubak ez du ustezko lesioa Federazioaren aurrean frogatu, agiri mediko bitartez, partida amaitu eta hurrengo 72 orduetan (joko araudiaren 50. artikulua)".*

Hirugarrena.- CD Hernani klubak aurkeztutako errekurtsioan adierazi zuen pilotariaren egoera fisikoaren aldaketa oso argia izan zela, 4. tantoan pilotari lesionatuak partida gelditzeko eskatu zuela eta 8. tantoan pilotaria kantxatik irten zela aurrera jarraitu ezin zuelako keinu argiak eginez; epailea ez dela medikua pilotari baten egoera fisikoa edo fisiologikoa aldatu den ala ez erabakitzeke, bai pilotariak eta baita botileroak ere aldaketa jokatzen ez jarraitzeko moduko aldaketa handia izan dela esaten ari zaizkionean; Araudiaren 58. artikulua dioela pilotariak klub baten izenean jokatzen dutenean, talde bakoitzeko gehienez ere ordezkapen bat onartuko dela eta ordezkoak minutu bat izango duela jokora sartzeko aldaketa boluntarioaren ondoren eta haien eskaera ez zela izan aldaketa boluntario baterako baizik eta lesio baten ondoriozko eskaera, eta lesioa zegoenik onartu ez zen arren, aldaketa bat egiteko eskubidea zutela aipaturiko Araudiaren artikulua arabera.

Azkenik, adierazi zuten epailearen aktan jaso zela partida bertan behera utzi zela Hernani taldeak jokatu nahi ez zuelako eta erretiratu egin zelako eta, beraz, Joko Araudiaren 50. artikuluan aipaturiko agiri medikoa ez zela beharrezkoa. Aktan adierazi izan balitz Hernani taldea pilotari baten lesioaren ondorioz erretiratu zela, agiri medikoa astelehen hartan bertan aurkeztu izango litzateke Federazioan, kasu horretan eta Araudiari jarraiki derrigorrezkoa izango zelako.

Laugarrena.- Federazioko lehiaketa-arduradunak alegazio-idazkia aurkeztu zuen emandako entzunaldi-izapidetaren barnean, bertan azalduz Hernani klubak KJEBan aurkeztutako errekurtsioa ez datorrela bat Federazioan aurkeztutako aurkaratzeko idazkiarekin, orain arte Hernani klubak ez baitu Araudiaren 58. artikulua argudiorik erabili; halaber esanez idazki



batetik bestera pilotariaren egoeraren deskribapena aldatu zela eta hainbat paragrafo falta direla KJEBan aurkeztutako aurkaratzeko idazkian Federazioan aurkeztutakoarekin alderatuta. 58. artikuluari dagokionez, alegazio-idazkiak dio 2009ko uztailaren 24an artikulua horren idazketa aldatu zela eta, 2009ko irailaren 1etik aurrera ez dela onartzen aldaketa boluntarioaren aukera.

Federazioaren alegazio-idazkia "Joko Araudiaren hutsen zuzenketa" izeneko dokumentu batekin dator, 2009ko uztailaren 24koa eta 2009ko irailaren 1az geroztik indarrean dagoena, eta norgehiagokaren epaileak sinatutako idazki batekin, azken idazki horretan honakoa adierazten delarik: akta berresten dela; Hernani klubeko pilotari nagusiak ez zuela partiduen aurretik, ondoren edo partiduan zehar adierazi inongo lesio edo ondoez fisiko edo fisiologikoren sintomarik; kantxan egon zen bitartean ez zuela agertu inongo min edo ondoezik, ez eta ordezkatua izateko nahirik, eta ez zuela inongo arazorik adierazten zuen keinurik edo seinalerik egin; Hernani klubeko ordezkaria izan zela jokalaria nagusia aldatzea eta taldea partidatik erretiratzea erabaki zuena pilotari nagusiaren ordezkapena ukatu zitzaiolako eta Hernani kluba partidatik erretiratu egin zela aktan jaso eta bost minuturen buruan, akta ordezkariek berak eskatu eta sinatu zuelarik, behin eta berriz eskatu ziola partida jarraitzea jokalaria nagusi berarekin, eta berak eskaerari uko egin ziola.

Bosgarrena.- Lehenago adierazi gisa, Hernani klubak Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Lehiaketarako Epaile Bakarraren Ebazpenaren aurka aurkeztutako aurkaratzeko-idazkiaren oinarria da, laburbilduz, pilotariaren egoera fisikoaren aldaketa argia izan zela eta Joko Araudiaren 58. artikulua talde bakoitzeko aldaketa bat onartzen duela eta, kasu honetan aldaketa eskatzearen arrazoia lesioa izan arren, aldaketa hori egiteko eskubidea zutela edozein kasutan ere.

Joko Araudiaren 49. artikulua honakoa xedatzen du:

"Lesiotzat joko da kalte fisiko edo fisiologikoko edozein kalte (kantxako berotze ariketak barne), baldin eta pilotariak horren erruz ezingo balu aurreko egoera berean jokatu".



Argi dago aztergai dugun kasu honetan ez gaudela Joko Araudiaren 49. artikuluan deskribatutako lesio-kontzeptuaren aurrean, artikuluko horrek kaltea partidan zehar gertatzea eskatzen baitu, eta hori ez zen gertatu kasu honetan, non jokalaria ondorezaren sintomak adierazi zituen partida hasi aurretik, Hernaniko ordezkariaren norgehiagokaren aurreko adierazpenak jasotzen dituen epailearen aktaren eta akta horren aurka Hernani klubeko ordezkariak aurkeztutako alegazio-idazkiaren arabera, azken honetan honakoa adierazi zelarik: *"Partida hasi aurretik epaile nagusiarengana joan nintzen eta ordezeko pilotari bat apuntatu nahi genuela esan nion, pilotari nagusietako batek gau txarra pasa zuelako eta apur bat zorabiatuta eta buruko minarekin zegoelako. Epaileak ez zidan ezer esan eta 3 pilotarien izena jaso zuen aktan. Partida hasi zen eta, markagailua gure alde 8-4 genuela eta kontuan hartuta 4. tantoan atsedenaldi bat eskatu genuela gaixo zegoen pilotaria ongi sentitzen ez zelako, pilotariak ezin zuela jokatzeko jarraitu esan zidan. Nik epaile nagusiarengana jo nuen aldaketa eskatzeko eta epaileak erantzun zidan ezin genuela aldaketa egin pilotaria lesionatuta ez zegoelako, 10 minutuko tarte ematen ziola bizkortzeko eta, partidarekin jarraitu ezin bazuen, partida amaitutzat joko zuela".*

Bestalde, Joko Araudiaren 58. artikulua, indarrean dagoen bertsioaren aurreko bertsio batean, ezartzen zuen pilotariak klub, federazio edo talde baten izenean jokatzeko zutenean, gehienez ere talde bakoitzeko aldaketa bat onartuko zela. Aldiz, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 58. artikuluko horren idazketa 2009ko uztailaren 24an aldatu zen eta idazketa berria 2009ko irailaren 1ean indarrean jarri zen, beraz norgehiagokaren momentuan honako idazketa zegoen indarrean:

"58. artikulua. Aktan, gehienez, bi ordezkoren izena eman ahal izango da bikoteen modalitatean, eta bakar batena bakarkakoan. Lesio kasuan soilik onartuko da pilotaria edo pilotariak ordezkatzeko eta 52. artikuluan xedatutakoari jarraiki, beti ere pilotari horiek klub, federazio edo talderen bateko ordezkari dihardutenean".

Beraz, indarrean dagoen idazkeraren arabera, jokalaria ordezkatzeko lesio kasuan soilik onartzen da eta kasu honetan ez zen lesiorik gertatu partidan zehar, Joko Araudiak ezarri moduan, beraz ezin zen jokariaren ordezkapenik onartu.



Ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak hau

ERABAKI DU:

CD Hernani klubak Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Lehiaketarako Epaille Bakarrak 2015eko uztailaren 8an emandako Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua ezestea, ebazpen horrek Hernaniko 2. urteko kimuek Zegaman, Udaberri txapelketaren barnean, 2015eko ekainaren 26an, Zestoako taldearen aurka jokaturako partida 16-8 galdu zutela ezarri zuelarik.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Gasteizen, 2015eko irailaren 10ean.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA